

Zenbatu eta adierazi diru kantitateak

Zenbatu zenbat balio duten txanponak

Begiratu nola idazten den bakoitzak duen diru kantitatea.



Ikerrek hogeita hamabost zentimo ditu.

0 € eta 35 cent

0,35 €



Elisabetek euro bat eta bederatzi zentimo ditu.

1 € eta 9 cent

1,09 €



Omarrek bi euro eta berrogeita hamar zentimo ditu.

2 € eta 50 cent

2,50 €

DIRU KANTITATEAK IDAZTEA

Diru kantitateak idazteko, euroa eta zentimoak koma batekin berejzi eta, gero, € sinboloa ipintzen da.



3,12 €



3 euro eta 12 zentimo esan nahi du.

EURO ZENTIMO

Ariketak

Aplikatu ikasitakoa

1 Idatzi bi modutan kaxa bakoitzeko diru kantitatea.

A



B



2 Marraztu honako diru kantitate hauek biltzeko behar dituzun txanponak:

1,22 €

1 € eta 87 cent

- 3 Kopiatu eta osatu koadernoan. Gogoan izan, zentimoak idazteko, bi zifra erabiltzen direla beti.

Adibidea: 1 € eta 7 cent = 1,07 €

EUROAK ETA ZENTIMOAK	EUROAK
4 € eta 30 cent	
	3,80 €
5 € eta 25 cent	
	2,60 €

EUROAK ETA ZENTIMOAK	EUROAK
1 € eta 5 cent	
	2,04 €
80 cent	
	0,06 €

Ikasi eta jardun

Bihurtu euroak zentimo.



$$\begin{aligned} & \overbrace{50 + 50 + 10 + 5}^{1 \text{ €}} = 115 \text{ cent} \\ & 115 \text{ cent} = 1 \text{ € eta } 15 \text{ cent} = 1,15 \text{ €} \end{aligned}$$

- 4 Kopiatu eta osatu koadernoan.

	112 cent = € eta cent = €
	 cent = € eta cent = €

- 5 Kopiatu eta osatu taula koadernoan.

ZENTIMOAK	EUROAK ETA ZENTIMOAK	EUROAK
245		
	3 € eta 56 cent	
		1,08 €

Pentsatu

Kopiatu koadernoan, eta jarraitu segidak osatzen.

